

I. ERANSKINA
ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA
EGITEKO TXANTILOIA
ANEXO I
PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA
ANUAL DE ÁREA O MATERIA

2017-18 Urteko/ikasturteko programaziodidaktikoa
Programación didáctica anual/de curso 2017-18

Ikastetxea: Centro: Etapa: Etapa: Arloa/irakasgaia: Área / materia: Osatutako arloak/irakasgaiak Materias integradas/ áreas Diziplina barruko oinarriko kompetentzia elkartuak Competencias disciplinares básicas asociadas	IES URIBEKOSTA	Kodea:	015143
	BHI(Plentzia)	Código:	
	DBH	Zikloa/maila:	1. kurtsoa
		Ciclo/nivel:	
	Plastika		
	Euskera, TIC eta Gizarte-Zientziak		
	"Teknologiarako gaitasuna: Problema praktikoak ebaztea, eta eguneroko bizitzako zenbait esparrutan gizakiok izan ohi ditugun premiak eta irrikak asetzea, teknika eta ezaguera teknologikoak modu egoki eta arduratsuan erabiliz." (Heziberri 2020, 71.orr).		
	Irakaslea(k): Profesorado:	Ikasturtea:	2018/2019
	Graciela Badosa	Curso:	

Zeharkako kompetentziak / Competencias transversales:

1. Komunikazio-kompetentzia eta kompetentzia digitala: [komunikatzen jakitea](#).
2. Ikasten ikasteko kompetentzia: [pentsatzen eta ikasten jakitea](#).
3. Norberaren ekimenerako kompetentzia: [ekimenez jokatzen jakitea](#).
4. Gizarterako kompetentzia: [elkarrekin bizitzen jakitea](#).
5. Norberaren autonomiarako kompetentzia: [Norbera izaten jakitea](#).

Helburuak Objetivos	Ebaluazio-irizpideak Criterios de evaluación
1. Produktu estetikoek gizakien bizitzan eta euskal herritarrengan eta herri guztietan duten eta izan duten funtzioa eta garrantzia ulertzea, eta arte-korronteen, moden eta gustuen bilakaeraz eta aberastasunaz jabetzea, munduari eta pertsoneri buruzko balioak eta ikuspegiak osatzen zer zeregin duten ulertzeko.	<ol style="list-style-type: none"> 1. Argudio bidez konparatzea irudiak eta arte-ekoizpenak egiteko hainbat garai historikotan eta hainbat kulturatan egon diren lanketa-moduen arteko desberdintasunak eta antzekotasunak. <ol style="list-style-type: none"> 1.1. Ea igartzen dituen garai edo talde desberdinen alderdiak irudien eta artelanen irudikapenean. 2. Kritikoki aztertzea artelanak edo gertuko inguruneko irudiak, eta mundua ulertzeko moduekin eta gizarteak natura-guneaz, gizarte-inguruneaz edo
2. Arte-gertaerak herrien eta kulturen ondarearen eta nortasunaren zati direla aintzat hartzea,	

arte-gertaeren adierazpenak interesatzea, zaintzen eta berritzen laguntzeko, eta kultura arteko trukeak, elkarrizketak eta arte esperientzia partekatuak aberasgarriak direla jabetzea.

3. Estetika-produktuak sortzea, emozioak eta sentimenduak, bizipenak eta ideiak adierazteko, bai eta natura-guneko eta kultura-inguruneko espazioak, objektuak eta elementuak irudikatzea ere, komunikatzeko, gogoeta kritikoa egiteko eta auto-konfiantza izateko ahalmena garatzen laguntzeko.

4. Arte-hizkuntzen teknika, baliabide eta arau nagusien oinarrizko ezagutza eta jakintza izatea. Teknologiek eskaintzen dituzten aukerak irakastea, sorkuntzetan erabiltzeko, bai eta ikusizkoen kulturako lanetan eta adierazpenetan identifikatzeko eta balioesteko ere.

5. Pentsamendu-trebetasunez baliatzea: ikerketa, irudimena, ikusizkoen baliabideen bilaketa eta manipulazio sortzailea... ikuspuntu estetikoa eskuratuz, ideiak berriz egiteko, inguruko objektuak eraldatzeko, hainbat konponbide proposatzeko eta egoerak problema bihurtzeko.

6. Diseinuarekin, ikusizko euskarria duten informazio eta komunikazio-bitartekoekin eta objektuak eta formak teknikoki irudikatze sistemekin lotura duten

pertsoneri buruz egiten dituen elkarrizketekin eta irakurketekin lotzea. esaterako: paisaia, giza gorputza, haurtzaroa...

2.1. Ea egiten eta garatzen duen gai komun bat lantzeko modu bat baino gehiago erabiltzen duen talde-proiekturik eta bakoitzaren planteamenduak arrazoitzen dituen.

3. Arte-adierazpenen ezaugarriak identifikatzea eta konparatzea, eta kulturen ondarearen zatitza hartzea.

3.1. Ea loturarik egiten duen arte-adierazpenen ezaugarrien artean.

4. Arte-adierazpenak etengabe aldatzen diren produktutzat hartzea, eta, adierazpen horietan, kulturen arteko harremanak eta pertsonen eta gizarteen arteko eraginak beti hor egon direla jakitea.

4.1. Ea erabiltzen dituen beste pertsona batzuegandik hartutako ideiak edo proposamenak, arrazoituz, proposamen plastiko berriak egiteko.

5. Arte-ekoizpen konplexuak egitea, adierazpen-baliabideen espektro zabal bat arrazoituz erabiliz.

5.1. Ea arrazoitzen duen ekoizpenei zentzua ematen laguntzen dioten baliabide plastikoekin eta ikusizko baliabideekin erabilera.

6. Proposatutako arte-problema erantzako euskarri, material, tresna, prozesu eta prozedura egokia erabiltzea, eta zuzentasunez erabiltzea lanetan.

6.1. Ea behar adinako trebetasunez eta akaberaz erabiltzen dituen irudiak sortzeko bitartekoak eta teknikak.

6.2. Ea behar bezala erabiltzen dituen, adierazpenetan komunikazio-asmoz, teknologia euskarri duten bitartekoak.

6.3. Ea behar bezala justifikatzen dituen ekoizpen plastiko edo ikusizko ekoizpen jakin baterako aukeratutako teknikak.

gure kulturako ekoizpen artistiko-estetikoko eremuak ezagutzea eta haien berariazko kodeetara hurbiltzea, kritikoki balioesteko, eta adierazteko eta komunikatzeko baliabide gisa erabiltzeko.

7. Plastikaren hizkuntzak eta ikusizkoen hizkuntzak beste hizkuntza batzuekin eta ezagutzaren beste eremuekin dituzten harremanak ulertzea, integratzea eta arte ekoizpen konplexuak pentsatzeko eta garatzeko erabiltzea.

8. Norberaren eta ingurunean nagusi diren adierazpen estetikoetatik desberdinak errespetatzea eta aintzat hartzea, prozesu erreflexibo eta kritikoen bitartez, estereotipoak eta konbentzionalismoak gainditzeko, erantzunak ematekoan erregistroak ugaritzeko eta malgutasun, elkartasun, interes eta tolerantzia jarrerak garatzeko.

9. Banaka edo taldean arte-proiektu baten plangintza egitea eta proiektua egiteko prozesuari buruz gogoeta egitea, lortu nahi denaren intentzioak, faseen azterketak eta emaitzen ebaluazio kritikoa duten

7. Mezuetan esku hartzen duten baliabide plastikoak eta ikusizko baliabideak kritikoki aztertzea, haien asmoak hautematea, bai eta iritzi publikoaren eremuan eta bizimoduaren zabalkundearen erabilera eta banakako eta taldeko osasunean dituzten ondorioak ere.

7.1. Ea arrazoitzen dituen egiten dituen interpretazioak eta azterketak.

7.2. Ea proposatzen duen ikuspuntu estetikoetik edo formaletik objektu bat edo egoera bat ikusteko modu berririk.

8. Artean eta errealtatearen irudikapenean geometriaren erabilerak ematen dituen aukerak ulertzea, eta norberaren ekoizpenetan aplikatzea.

8.1. Ea ebazten dituen objektuak irudikatzeko problema errazak baliabide geometrikoak erabiliz.

9. Arte-ekoizpen batean hainbat hizkuntzaren artean sortzen diren harremanak ezagutzea, eta komunikaziorako egiten duten ekarpena aintzat hartzea.

9.1. Ea probatzen dituen bere artelanetan hizkuntzak konbinatzeko hainbat aukerak.

10. Mota askotako adierazpen estetikoak egotea aberastasun faktoretzat hartzea eta balioestea, zergatia ulertzen saiatzea, bai eta adierazpenerako duten garrantzia ere.

10.1. Ea originaltasunez eta irudimenez adierazten dakien, eta lan batetik bestera hobetzen saiatzen den.

10.2. Ea ikusmina sortzen dioten adierazteko eta irudikatze moduek eta beste pertsona batzuen adierazpen estetikoek, eta ea errespetatzen dituen.

11. Lan-prozesu bat asmatzea eta garatzea, norberaren edo taldearen premien arabera, eta prozesuaren fase bakoitzak balio duen eta komeni den arrazoitzea.

garrantziaz jabetzeko. Lan partekatua arduraz, tolerantziaz eta besteen iritziak errespetatuz bere gain hartzea.

- 11.1. Ea egiten eta garatzen duen lan-metodirik proposamen jakin baterako.
- 11.2. Ea artelanen etapak logikoki antolatzen eta garatzen dituen.
- 11.3. Ea bere akatsak onartzen dituen, eta hobekuntza-tresnatzat hartzen dituen.

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitatedidaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo bestemoduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en periodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

1go. EBALUAZIOA:

Marrazketa figuratiboaren hastapenak.

Irudiak orrian kokatzea. Ardatzak eta norabideak finkatzea. Irudi geometrikoak erabiltzea.

Proporzioak finkatzea. Xehetasunak marraztea eta azken ukituak ematea.

Formak eta irudiak artean.

Kolorea.

Kolore beroak erabiltzea. Kolore hotzak erabiltzea. Koloreen azterketa. Koloreen harmonia.

Kolorea naturan.

Marren adierazkortasuna marrazketan.

Marra motak. Marra geometrikoen bidez sortutako testurak. Bolumena adierazteko balio duten testurak. Collage bidez egindako testurak.

Artistek egindako lanen azterketa.

Arazo egoera: Bolumena lantzen: Cow Parade

2. EBALUAZIOA:

Bolumena adieraztea.

Argiak eta islak. Itzalen ñabardurak. Objektuak egiten duen itzala. Kolorearen bidez bolumena adieraztea. Argiak eta itzalak eskulturan.

Berdintasuna eta antzekotasuna marrazkietan.

Marrazki simetrikoak. Lauki-sarea erabiltzea. Marrazkiak tamaina handiagoan kopiatzea.

Proporzioak. Simetria eta antzekotasuna eskulangintzan.

Konposizioa eta erritmoa.

Konposizioko marra nagusiak. Translazio bidezko erritmoa. Biraketa bidezko erritmoa.

Konposizioan aldaketak egitea. Konposizioa arkitekturan.

Arazo egoera: Erretratua.

3. EBALUAZIOA

Oinarrizko irudi geometrikoak.

Zuzen paraleloak marraztea. Angeluak, triangeluak eta laukiak marraztea.

Pentagonoak eta hexagonoak marraztea. Zirkunferentzia marraztea. Geometria diseinuan.
Espazioa adieraztea.

Hurbiltasuna eta urruntasuna marren bidez adieraztea. Hurbiltasuna eta urruntasuna kolorearen bidez adieraztea. Objektuen tamaina. Ihes-lerroak. Perspektiba argazkietan.

Arazo egoera: bideoa: mugimendua irudi finkoekin.

METODOLOGIA [edukientolaketa, jardueramotak, baliabidedidaktikoak, ikasleentaldekatzeak, espazioen eta denborenantolaketa, irakasleen eta ikasleeneginkizuna... ikuspegiinklusibobatetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

1. Eguneroko lana da nagusi.
 - Ikaslea bere ikasketa prozesuaren protagonista da; bai irakaslea bai materiala laguntzaile hutsak izango dira.
2. Koadernoak ebaluaketa bakoitzean aurkezten da. Eta gainditzeko lan guztiak aurkeztu beharko dira. Lanak bukatuta eta zuzenduta egon behar dira.
3. Ikasketa gaurkotuak sustatzea. Horretarako ondoko puntuak jarraituko dira:
 - Eduki berriak gaurkotuak izango dira.
 - Ikasitakoaren funtzionalitatea bilatuko da.
 - Ikaslearen motibazioa eta jarrera baikorra, aurreko ezagutza eta berriaren arteko lotura ezartzeko, ezinbestekoak izango dira.
4. Taldekako nahiz bakarkako lanerako ohitura lortzea norberaren konfiantza, zentzu kritikoa, interesa eta sormena bultzatuz.
5. Autonomia bultzatzea: ikasleak edukiak barneratzea lortzeaz gain, gure helburua ere ikasitakoa besteei transmititzeko gai izatea da.
6. Ordenagailua erabiliko dugu: lan koadernoko informazioa Internet bidez indartu, eta zenbait lan egiteko. Noizean behin, beste euskarri bat erabiliko da.
7. Ariketen zuzenketa, hauek egin bitartean edota bukatzerakoan banakakoa izango da. Egindako zuzenketak, ikasgela osoarentzako hobetze-tresna badira, altuan esango dira.
8. Ikasleek ekarri behar dute marrazketako koadernoak eta oinarritzko materiala (arkatza, borragoma, zorrozka, erregela, eta orriak). Ariketaren arabera, material espezifikoak beharko dute (kolore arkatzak, errotuladoreak, artaziak, kola, konpasa, eskuaira eta kartaboiak), aparteko materiala gelan izango dute.

9. Saioa amaitzean materiala garbitu beharko dute. (Beraien esku utziko dut antolaketa).

BALIABIDEAK

Lehenengo mailan liburua jarraituko dugu.

Plastikarako gela berezia izango dugu (Konketa dago bertan besteak beste)

Ikasleak edukiak bilatuko ditu material didaktiko eta ahozko azalpenen bitartez: arbela, ordenagailua, proiektorea, arbela digitala, bideoak edo aurkezpenak, programa informatiko desberdinak, liburuak, fotokopiak, internet tresnak izanik.

EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizkoprobak, galdetegiak, banakako eta taldekolanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelakokoadernoak, portfolioa, kontratudidaktikoa...]

INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebasorales y escritas, cuestionarios, trabajosindividuales y engrupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contratodidáctico...].

KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzarenpisua eta balioa]

CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cadainstrumento de evaluación].

EBALUAZIO TRESNAK

1. ATALA: IKASLEAREN EKOIZPENAK

- Lan-koadernoak
- Zirriborroak
- Aparteko lanak
- Klaseko apunteak
- Ahozkoak klasean

- Lan bakoitza 1 eta 10 puntu bitartean kalifikatuko da.
- Ikasgaiaren nota orokorra lan guztietan lortutako kalifikazioen arteko batezbestekoa izango da.
- Batezbestekoa egiteko, eskatutako lan guztiak gaindituta egon beharko dira.
- Lanak entregatu behar dira ezarritako epean. Hurrengo egunean bada bakarrik 5 lortuko da.
- Derrigorrez denean azterketa bat egingo da.

2. ATALA: BEHAKETA SISTEMATIKOA.

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

LAN KOADERNOA: EDUKIAK%20

- Kontzeptuak bereganatu eta ulertu.
- Hiztegi teknikoa egokia erabiltzen du
- Planteatutako proposamenenei erreferentzia egiten die
- Arte lana egiteko fase bakoitzean plangintza egiten du
- Lanen ideia azalpenak eta arrazoinamendua
- Marrazketa ezagutza iturri eta pentsatzeko beharrezko lanabes gisa onartzen du.
- Eduki guztiak aurkeztu
- Autonomia eta erabakiak hartzeko gaitasuna

PROZEDURAK%60

- Trazado geometrikoak erregelaz, eskuairaz, kartaboiak eta konpasaz.
- Teknika, materiala eta prozedura grafiko plastikoak erabiltzen ditu.
- Irudikapen sistemak erabiltzen ditu.
- Lana egiteko orduan txukuna, zehatza eta garbia izatea, kalitate eta garbitasun minimoa.
- Ordenaz eta garbitasunez lan egin

JARRERA%20

- Interesa adierazi
- Epe barruan entregatu

EGUNEROKO BEHAKETA:

ahalegina, aurrerapena, ikasitakoaren erabilpena irakaslearen koadernoan eta kontrol orriak

- Gelan behaketa zuzena.
- Gelan egindako lanak.
- Etxean egindako lanak: materialak, irudiak, adibideak...bilatzea, bozetoak egitea...
- Ebaluaketa bakoitzeko lanak.
- Nola antolatzen duten lana eta taldea. Prozesuen fase ezberdinak.

- Ikasleak bere ikaskide eta ikasgaiarekiko dituen jarrera
- Irakaslearen azalpenak arretarekin entzun, apunteak hartu eta ulertu.
- Klasean parte hartzea.
- Gela eta materialak zaintzea eta garbi mantentzea.
- Materiala klasera ekartzea
- Txanda errespetatu
- Eguneroko lana, asistentzia, puntualitatea.

HUTSEGITEEI DAGOKIONEZ, INSTITUAN ONARTUTAKO ARAUA APLIKATUKO DA. KLASERA ETORTZEA DERRIGORREZKOA DA.

KALIFIKAZIOAEN BALIO PORZENTUALA

KONZEPTUAK %20

PROZEDURAK %60

JARRERAK %20

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzekoneurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapenmetodologikoak, emaitzen analisisia, plangintzadidaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].

CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].

Ebaluaketa gaitzeko lan guztiak aurkeztu behar dira (%100).

Lan bakoitzaren atalak eta gutxiengoak gaitzuta egon behar dira. Irakasleak finkatuko du atal bakoitzari emandako balioa, aurreko irizpideak kontuan edukita.

Ikasgaiaren bukaerako nota 3 ebaluazioen batz bestekoa egiten lortuko da (hiru ebaluaketak gaitzuz gero). Irakaslearen progresioa ere kontuan izango da.

BERRESKURAPEN SISTEMA

Berreskurapena ebaluazio bakoitzean edo ikasturte bukaeran egiten da:

-Ebaluaketa bat errekupeatzeko. Ebaluaketaren ekoizpena berrito aurkeztea (gaitzitu ez diren laminak, txarto, bete gabe edo egin gabe egoteagatik) ebaluazio positiboa edukitzeko. Helburu minimoak lortzen ez baditu eskaintzen diren praktika lagungarriekin errekupeatzeko dira.

Notak jaso ondoren aste bat dauka aurkezteko. Denak entregatzen badira eta ondo egoten badira bere nota 5 izango da.

-Ohikoan: gaitzitu gabe daukan ebaluaketa errekupeatu behar du. Bi izaten badira azterketa edukiko du eta lan guztiak aurkeztu eta gaitzuta egon behar dira. Epea ekainean, jarritako datan, izango da.

-Ez-ohikoan: gaitzitu gabekoek azterketa teoriko-praktiko baten bidez egingo da. Epea ekainean, jarritako datan, izango da.

-Gaitzitu gabeko: ikasleak aurreko urteko ikasgaia errekupeatzeko, udako lana egin behar du. Lan hau ekainean ikasleari ematen zaio, udan prestatzeko eta hurrengo ikasturtearen hasieran aurkeztu behar du. Lan honen notaren pisua %80 da. Urtarrilean azterketa gaitzitu behar du. Azterketaren notaren pisua %20 da. Gaitzitzen baditu errekupeatzeko du ikasgaia. Horrela ez bada, eta 2.DBHko lehenengo ebaluaketa gaitzitzen badu, nota gordeko dugu,

errekuperatu arte.

1. deialdia. urtarrilean edukiko du.
2. deialdia. Ohikoan
2. deialdia. Ez-ohikoan

INDARTZE SISTEMA (Ikasketa prozesuan era egokian jarraitzeko zailtasunak dituzten ikasleentzat)

Eskakizun-maila egokia eskatuko zaie.

Lan egiteko orduan ikaskide edo talde egokiak egingo dira.

Irakaslearen banakako arreta emango zaio ikasleari. Ulertu ez duen hura, berriz azalduko zaio, klasean, besteak beste ariketa bat egiten dauden bitartean.

Beharrezkoa izaten bada, indartzeko jarduerak burutuko dira.

OHARRAK / OBSERVACIONES

Ikastetxeko proiektuak 2018-2019

Agenda 21: Kontsumorren kudeaketa arduratsua bultzatu eta ikastetxe-ingurunearen alde lan egiteko konpromisoa baloratuko da.

Hezkidetza (Aniztasuana): Sexu eta identitate aniztasunarekiko errespetua eskatu eta baloratuko da. Hezkuntza komunitatean ikasle guztien parte hartzea bultzatuko da.

Bizikasi: "Arloko ekintzetan, hezkuntza komunitateko kide guztien arteko harreman positiboak eta elkar bizitza osasungarria eraikitzen lagunduko da."

IKT: Gure ikasleek bere garapenerako behar dituzten gaitasun digitalak eskuratzeko informazioa bilatu, lortu, prozesatu eta komunikatu beharko dute (informazio hori jakintza bilakatzen).

Normalizazioa: Euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak eta jarduerak landuko ditugu. Hezkuntza komunitateko kide guztien arteko euskararen erabilera sustatzen, zaintzen, indartzen eta erabiltzen.

Irakurketa Plana: Arloko testu espezifikoak ulertzeko jarduerak landuko dira, ikaskuntza-jardunaren oinarritzko edukia izan dadin.

HTB: Gure Hobekuntza Planean eta Hizkuntza Proiektua adierazten den bezala, irakurmena lantzeko berenberegiko atazak egingo dira.. Halaber, idatzizko testuak zuzentzeko mintegi guztien artean adostutako txantiloia erabiliko da.

HIZKUNTZA PROIEKTUA - ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK		
ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK	%100	%0
ITXURA ETA ANTOLAKUNTZA	-Paragrafoak ondo antolatuak. -Garbi eta txukun dago -Izenburu egokia -Orri bazterrak daude	-Paragraforik ez dago -Narratsa. -Izenbururik ez dago -Orri bazterrik ez dago.
ZUZENTASUNA	-Ortografia, lexikoa eta gramatika. -Kontraesanik eta errepikapenik ez dago -Idea bakoitzeko paragrafo bat -Puntuazioa zuzena da	-Akats nabarmenak: ortografia, lexikoa, gramatika -Kontraesanik eta errepikapenak daude -Paragrafo nahasiak -Puntuazioa desegokia da
HELBURU KOMUNIKATIBOA	-Lanak mezua argi eta ondo transmititzen du.	-Lanak ez du mezua ondo transmititzen.

UNITATE DIDAKTIKOA 1. ebaluaketa

Arloa: Plastika

Gaia: Bolumena lantzen: Cow Parade

Maila: 1DBH

Saioak: 8

Proposamenaren justifikazioa: Gaur egun gizartean, irudimena oso garrantzitsua da eta edozein jardunaldi prestatzeko originaltasuna da elementu nagusia. Cow Parade esposizio internazional publikoa da, mundu osoan zehar erakutsia izan dena. Erakusketa honetan, hiri bakoitzeko artista lokalek behi itxurako beira-fibrazko eskulturak margotu behar dituzte, gero hauek hirian zehar, leku publikoetan, sakabanatzeko asmoz. Orokorrean eskulturak bertako kultura kutsuekin margotzen dira.

Marrazketa mintegian, gure proposamena hau izango da: gure ikasleek haien eraiki dituzten paperezko eskulturak apainduko dituzte. Gero institutuan erakusketa bat egingo da edo gabonetako jaietan desfile bat egingo dute.

Arazo-egoera

- Testuingurua: Artea gure eskura
- Arazoa: Cow Paradeak horrenbesteko arrakasta izan zuen mundu osoan zehar. Guk antzeko erronka planteatu dugu. "3D Parade" erakusketa egin nahi dugu, non ikasleek paperezko zerbait (objektu bat, animalia bat...) margotu eta eraikiko duten, gero esposizio bat egiteko.
- Helburua: Bolumena lantzeko momentua heldu da. Institutuko proiektuan parte hartzeko paperezko eskulturak egingo ditugu eta aparientzia ezberdinak diseinatuko dituzte. Horrela ikasleek ekintzak motibazio gehiagorekin hartuko dituztela uste dugu. Alde batetik 3D dimentsioetan lan egingo dute eta beste alde batetik diseinuan irudimena lantzeko aukera edukiko dute.

Eginkizuna

1DBH Animalia batzuen buruaren paperezko maskarak eraiki eta apainduko dituzte.

Oinarrizko kompetentziak:

Zeharkako kompetentziak

1. Hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna
3. Elkarbizitza eta hiritartasunerako kompetentzia
4. Ekimen eta espiritu ekintzailerako kompetentzia
5. Norbera izaten ikasteko kompetentzia

Helburu didaktikoak:

- Gu gara eskultura-egileak. Guk antolatuko dugu behar duguna.
- Eskultura eta errealitatearen arteko erlazioaz jabetuko gara.
- Ikasleek arazoak gainditzeko estrategiak garatuko dituzte.
- Esku trebetasuna eta sormena landuko dugu, material eta tresna desberdinak erabiliz.
- Lana egin ondoren honek zer transmititzen duen eztabaidatuko dugu.

Edukiak:

- Garapen planoak ikusi eta interpretatu.
- Marrazkiak egin: apainketa.
- Ideiak ordenatu eta modu egokian adieraztea.
- Materiala pentsatu. Papera ez biguntzeko edo apurtzeko baliabideak garatu.
- Behin betikoa egin.
- Prozesua azaltzen duen memoria bat egin.
- Lantaldearen antolaketa eta denboraren kudeaketa.
- Materialen erabilera egoki eta errespetuzkoa.

Jardueren sekuentzia:

Hasierako fasea:

Proiektuen ezaugarri orokorrak:

Prozesuaren antolaketa behar da:

- Garapen planoari buruzko ikerketa egin.
- Apaintzeko diseinua egin.
- Eraikitzeke pausuak antolatu.

Ikasleei beraien proiektuetan protagonismo gehiago eskatzen zaie, bai eraikitzerako, erabakitzerako zein baloratzerako orduan. .

La Cow Paradeari buruzko informazioa lortu eta sailkatu beharko dute. Ereduak ikusi eta herriko kulturaren inguruko ikonoak erabili beharko dituzte zirriborroak egiteko.

Garapenaren fasea:

- Eginbeharrekoak planifikatu eta planifikatutakoa bete.
- Apaintzeko zirriborroak hasi (bakarko lana). Taldean, amankonunean jarri eta behin betiko diseinua erabaki.
- Pentsatu zein material eta eskala diren egokienak.
- Marraztu eta koloreztatu.
- Piezak moztu, antolatu, itsatsi eta eraiki.

Aplikazio eta komunikazioaren fasea:

- Besteekin partekatu.
- Kritikak: Jendeak jakingo du Cow Parade zer den.

Ebaluazioa.

A. Adierazleak

- Gai bati buruzko planteamendua:
- Teknikoki minimoak lortuta

A. Tresnak

- Irakaslearen ebaluazio taulak. Txantiloia